



BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 172. alea - 2013ko martxoa



**Ttipi-ttapa,
ttipi-ttapa...
Korrika
badator!**

euskaltel
gorokaeuskaltel.com

aek

18.korrika
EMAN EUSKARA ELKARRI

DEBAn
9:36an



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)




ABEL

Kristaldegia

Mota guztietako kristalak
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)
Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



ARKATZA


Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behea - 20820 DEBA
943 029 186

URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA



LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



kutxa

zugandik zugana



haizea

estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazaatik




BURU - ZURI


Taberna

- Otarrekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntzak
- Gauefan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



Kafetegia



Foruen Plaza
Tel.: 943 191 035
20820 DEBA (Gipuzkoa)



Calbeton



JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



L.A.

LARRAMENDI ANIAK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:
Zuhatza Euskara Elkartea
Erredakzio taldea:
Goizane Aizpurua,
Mikel Aizpurua,
Koldo Aperribai,
Izaro Aulestiarte,
Nagore Dorronsoro,
Lukax Dorronsoro,
Xabier Laka,
Migel M.Lekube (Lutxo)
Ina Oartzabal eta
Eider Zulaika
Azaleko irudia:
Erredakzio taldea
Publizitatea:
Joseba Escudero eta
Juan Mari Gurrutxaga
Tlfnoa.: 943 19 13 83
943 19 26 94

Logotipoaren diseinua:
Iñaki Elosua
Maketazioa:
Leire Rubio
Banaketa arduraduna:
Juanma Oartzabal
Inprimategia:
Euskalinpri
Tirada:
1.400 ale
Lege gordailua:
SS-246-2009
ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTU-NAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehenez 25 lerro izan behar-ko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali behar-ko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILERAK



LAGUNTZAILERAK



Deba Udal



Gipuzkoako Foru Aldundia



09



15



17

KOLABORAZIOA.

Maite Rodriguez,
"Balut, tamilok eta papaitan". **05.**

IHTZIA.

"Ez Dok Amairu"
(Lander Aranberri,
Gazte Asanblada);
"197/2006 Doktrina eten"
(Debako Herrira Bilgunea) **06-07.**

ALBISTEA.

Badator Korrika 18;
eman euskara elkarri!
09.

**BERRIKETAN
GAZTEA.**

Jon Arretxe idazlearen
bisita, inkesta, denbo-
ra-pasak... **11-14.**

ALBISTEA.

Emakumearen
Nazioarteko Egunaren
bueltan. **15.**

LABURRAK.

Udal aurrekontuak,
Debanaturaren
ekimenak... **16-17.**

ZERBITZUAK. 18.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

RAMONI AGURRA

*Azkenaldiko zure ametsa
ezin izan da gauzatu
kartzelan duzun seme kuttuna
etxean nahi besarkatu
zorigaiztoko istripu batek
heriotza aurreratu
nahiz bistan dugun udaberria
ezin den guztiz loratu
Zuk emandako fruitu on asko
gurekin dira geratu.*

GAUR, martxoak 10, ezusteko albiste batekin hasi dugu eguna. Goiz erdian jakin dugu Ramon Beristain Unanue zendu dela, Itziariko "Erlete" euskal presoaren aita.

Hemendik gure doluminak sendi osoari eta bereziki aita besarkatzeko itxaropenak zapuztu zaizkion Jose Mari Beristaini, non ziegaren bakardadean, familiaren eta lagunaren babesetik urrun, egin beharko dion aurre aitaren heriotza-ren albisteari.

Animo eta aurrera, loratuko da berriro udaberria.

Debako Herrera Bilgunea

ARGAZKI ZAHARRA

Debar andereño talde bat



"Debar andereño talde bat duzue argazki honetan. Bertan ikus ditzakezue, ezkerretik eskuinera: Pepita Ruiz, Victoria Celaya, ezezagun bat, Tomasa Ulacia, Carmen Ruiz, Visitación Urquiri, Nati Celaya, Martina Olaizola, María Luisa Ulacia, Rosa Querejeta, Victoria Sarasola, Encarna Ruiz, Marichu Ulacia, María Cruz Celaya eta Angelita Aparicio".

Rosa Querejeta Antonio Andoneguiaren alargunak eskainitako irudia (data zehaztu gabea).

Iturria: "Egun Zaharretako Deba" liburua (1977ko otsailean kaleratua).

Maite Rodriguez

BALUT, TAMILOK ETA PAPAITAN

Balut, tamilok eta papaitan ez dira Euskaltzaindiaren hitz berriak. Tagalog janari izenak dira, Filipinetakoak. Ekialdeko plater asko ezagunak dira munduan, baina, Filipinetako sukaldea ez da txinatarra edo japoniarra bezain ezaguna. Era guztietako platerak dauzkate (7000 irlak osatzen dute herrialdea), baina balut, tamilok eta papaitan atentzioa deitzeko modukoak dira.

Balut ernaldutako ahate arrautza egosia da.

zuloa egiteko erabiltzen dituenak, gorputza babesteko beharrezkoak). Tamilok, mangladietan bizi da. Palawan eta Aklanen, gordinik, ozpinetan marinatuta, pipermin eta kipularekin jaten dute. Txipiroi gordin tentakuluen itxura dauka, gorputz luze, zuri-grisaxka eta likatsua. Esne edo ostra gustoa omen dauka, probatu dutenen esanetan. Palawaneko beste janari kurioa, Txinan oso preziatua den enara kabi zopa da. Kabiak,



Manilan bertan kaleetan saltzen dute, eta oso estimatua dute bertakoek. Arrautza oskolaren mutur bat apurtu, eta barruko "zopa" edaten dute; gero, eskola zuritu eta ahate fetoa eta geratzen den gorringo zatia jaten dute. Arrautzek 17 bat egun dauzkaten, fetoa lumatxo batzuk, pikua eta hezurtxo nahiko bigunak dauzka. Vietnamen eta Cambodian ere famatuak dira balutak, baina 19-21 eguneko arrautzak nahiago dituztenez, hezurtxo gogorragoak dauzkate.

Tamilok Palawan eta Aklan irlako plater berezia da. Euskeraz zizare barrenari deitzen da, (txalupetako eta urpeko eraikuntzetako egurra jaten duena). Egia esan, ez da zizarea, molusku bibalbioa baizik, txirlak bezala (oskol txikiak dauzka, egurretan

enara arraren txistuarekin eginda daude eta oso garestiak dira, itsaslabarretatik eskuz jaso behar direlako (1000 dolar inguru balio ohi dute kiloko). Egosi ondoren, oilasko zopa antzeko zaporea omen dute.

Papaitan Iloco-ko ahuntz (edo behi) zopa klasea da. Osagai nagusiak ahuntz azala eta tripak dira. Ahuntz okela ahuntz behazunetan egosten da; horrek zapore mingots berezia ematen dio. Ahuntz gibela, bihotza, tripakiak, giltzurrunak eta pankreasa ere zoparen osagai arruntak dira.

Okela eta arrain "normalagoak" (guretzat behintzat) ere ugari jaten dituzte Filipinetan. Balut, tamilok eta papaitan zure gustokoak ez badira ere, opporretan joateko leku ederra da!



Debako Gazte Asanblada

EZ DOK AMAIRU

Egunero entzuten dugu telebistan hurrengo belaunaldien etorkizunaren garrantzia. Hitz ederrak, esperantzaz beterikoak. Lastima da, ordea, hitzak hain hutsak suertatzea. Garai gogor hauetan, etorkizuna saltzen ari diren horien hitzak baitira, hitz faltsu eta gezurtiak. Nola liteke, bada, etorkizunaren alde ari direla zin egitea, gazteok egunero mespretxatuak, irainduak eta lotsagarri utziak garenean? Nola liteke, etorkizunean inbertitzea beharrezkoa dela esaten duten pertsona berak etxeetatik atzerri alde egiten ari diren gazte guztien tragedia ezkutatzea, eta herritar guztiok engainura eramatea? Izbek kontatua dit espainiarrez beteriko hiri ingelesak badirela dagoeneko, euskal gazte batzuk bertan bizi direlarik tarteka-marteka. Hitzak zehatz-mehatz entzutea gogorra egiten da oso. Horrez gain, guztiok jakitun gara hezkuntza lege berriak eta murrizketek arazoa areagotu baino ez dutela egiten; gainera, hezkuntza lege berri hori, ikasketei ez ezik, euskarari kalte egiteko ere oso eragingarri suertatuko da. Zein etorkizun du euskal gazteriak? Non dago Euskal Herria? Non defendatuko dugu gurea dena? Ez hezkuntza bakarrik, euskara bera ere? Modu bakarra geratzen zaigu: borroka.

Gazteak borrokalariak gabela esan izan da maiz. Eskubidez beterik gaudela, eta gehiago eskatzen dugula esan ohi du jendeak. Gazteok, hala ere, guztiz aurkakoa den ustea dugula esango nuke. Zapalduak izatearena. Haur ziztrin batzuk izatearena. Gure aukera hogei urte barru iritsi arte ezertarako ez egotearen sentsa-

zioa. Hamaika iruzur pairatzearena. Baina nahia eta ahala ez dira sinonimo; hala ere, zaila izan arren, iraun dezakegu borrokan, "ezina ekinez egina" baita. Ez Dok Amairu taldearen izenaren sorreraren ipuina dakarkit burura gogoeta honek.

San Martin, behin eta berriro, men egiten ari zen agintzen ari zitzaion jaunari. "Esantzak bat", "bat"; "esantzak bi", "bi"... eta horrela hamahiru arte. Orduan, agintzaileak "esantzak hamahiru" esan zionean San Martini, honek "ez dok amairu" esan zion; alegia, ez dago hamahirurik, ez dago madarikaziorik; bizirik da madarikatua izango dena madarikazioa artean guztiz bete ez denean.

Gogoan har dezagun, beraz, R.M. Azkuek utzitako lezio handi hau. Gazteok bizirik gaude, ez gara inozoak, eta ez gaituzte engainatuko. Eta mugi gaitezen azkar, eta defenda dezagun geurea dena, hamaika aldiz kendu baitigute. Egin dezagun borroka madarikazioa bete aurretik, gazteok bizirik gaude eta. Bai, 2013an gaude, baina Ez Dok Amairu!

Lander Aranberri



urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



197/2006 DOKTRINA ETEN

Honela zioen Jokin Urainek bere eskutitz batean: “... Kontuan izan behar da, ilusioak piztuz gain, planak ere egiten dituzula noiz kaleratuko zaren baldin badakizu eta eguna hurbil baduzu. Eta kaleratzeko gutxi falta zaizunean esaten badizute ezetz, arau berri bat ezarri dizutela eta beste lau, edo bost, edo zortzi edo hamar urte gehiago egin behar dituzula kartze-lan... Berriro preso hartzea bezalakoa edo okerragoa dela esango nuke. Eta, norberarenak ematen badu ere minik handiena, kideei, alboan dituzun lagunei hori gertatzeak ere ez zaitu gutxi larritzen”.

Hitz hauen aurrean, gauza bakarra esan genezake: GIZA ESKUBIDEAK, KONPONBIDEA, BAKEA.

TXISPAS, KIXKUR, ERLETE eta 197/2006 doktrina aplikatutako preso guztiak aske behar lukete dagoeneko.

Denbora batetik hona hainbat ekimen, mobilizazio, iniziatiba eta harreman desberdin burutu ditugu bai Euskal Herrian bai nazioartean ere, espetxe politikan benetako aldaketa eman dadin eta 197/2006 doktrina bertan behera geratzea eskatuz. Izan ere, giza eskubideak urratzen dituen zentzugabeko neurri honek 73 euskal preso politiko kolpatzen ditu, hauen arteko batzuek 20, 25 eta 30 urte ere eman dituzte espe-

txean, berauen artean ditugu Juan Mari Gabirondo, Jokin Urain eta Jose Mari Beristain herritarrak ere.

Euskal jendartearen gehiengo zabal batek 197/2006 doktrinaren derogazioaren alde dagoela azaldu du. Debako Udalak ere, pasa den otsailaren 28an burututako plenoan, aho batez onartu zuen lege honen aurkako mozioa.

197/2006 doktrina derogatzea ezinbestekoa da euskal preso politikoek bizi duten muturreko egoera amaitzeko. Martxoaren 20an, Strasburgon, Espainiak Ines Del Rio kasuko epaiari jarritako helegitea berraztertuko du Europako Giza Eskubideen Auzitegiak eta epaia erabakitzen duten bitartean ere gure aldarrikape-nekin jarraitu beharra dugu.

Horrexegatik diogu: BAI, Ines del Rioren askatasunari. Bai, Gabirondo, Urain, Beristain eta beste euskal preso politikoaren askatasunari. Bai, haien giza eskubideen errespetuaren alde eta Euskal Herrian konponbiderako prozesu baten alde gaude, gure herriak ez ezik, Europa osoak ere hala behar duelako.

Garaia da. Euskal Herrian bakerako aukerak behar dira.

Debako Herrira Bilgunea

Parot Doktrina bertan behera uzteko eskaria egin du Debako Udalak

Goiko iritzi artikuluan aipatzen den bezala, pasa den otsailaren 28an burututako plenoan aho batez onartu zuen Debako Udalak Parot Doktrina bertan behera uzteko eskatzen duen mozioa. Hona hemen mozio horrek jasotzen dituen hiru puntu nagusiak:

1.- 2012ko uztailan, Strasburgoko Giza Eskubideen Tribunalak, aho batez, Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren 197/2006 doktrina (Parot doktrina giza ezagutu dena), ez legezkoa eta oinarrizko eskubideen aurkakoa dela ebatzi ondoren, berau bertan behera uzteko eskatzen du udal honek. Ondorioz eta nazioarteko giza

eskubideen legeria aplikatuz, 197/2006 doktrina aplikatu zaien euskal preso guztiak berehalakoan aske uzteko eskatzen dugu.

2.- Euskal Herrian bizi dugun itxaropen eta konponbide aukeraren aurrean, euskal presoek aurkako salbuespeneko legeria bertan behera uzteko eskatzen du udal honek.

3.- Ebazpen honen berri, herritarrei eta Europako Kontseiluko Giza Eskubideetarako Komisionatua den Nils Muiznieks Jaunari ematea erabakitzen da.

Herriko merkataritza sektoreari bultzada bat emateko kanpaina berria aurkeztu dute



Gehiago eta hobeto saltzeko estrategietan oinarrituz, dendari eta taberna-jatetxeetako jabeek formazio saioa izan dute Agirre Jauregian. Horrekin batera, establezimenduetan euskara gehiago erabiltzeko eta zaborra gutxitzen joateko ekimenak ere antolatatu dituzte.

Udaleko, Debalai elkarteko eta Kutxa Ekoguneko kideek prentsaurrekoan aurkeztu dute elkarlanean prestatutako kanpaina berria, merkataritza sektoreari "beste bultzadatzat" eman nahi diona.

Maidar Zubikarai alkateak azaldu bezala, "Udalak herriaren garapen iraunkorra du helburu. Hau da, garapen ekonomikoarekin batera, gizarte justizia eta ingurumena zainduko duen garapen mota nahi du Debarentzat. Eta horrek esan nahi du bertako produktuak lehenetsi nahi ditugula; bertako jendeak ekoiztutakoak eta bertako dendetan saldutakoak; bertako kontsumitzaileentzat eta bertako hizkuntzan; eta, noski, bertako ingurua zainduko dutenak".

Hori guztia kontuan hartuta, kanpainaren baitan jarduera ezberdinak antolatuta dira. Alde batetik, herriko merkataria eta ostalariek "Gehiago eta hobeto saltzeko komunikazio estrategiak" izenburuko formazio saioan parte hartzeko aukera izan dute Agirre Jauregian. Komunikazio eta marketing kontuetan aditua den Joseba Kamiok eskaini die saioa.

Bestetik, euskararen erabilera sustatzeko hainbat ekimen jarri dira martxan. Adibidez, Euskara Batzordeak "Euskaraz? Pozik gainera" lemarekin identifikazio elementu bat sortu du, euskaraz zerbitzua emateko prest dauden dendari, tabernari edo jatetxeetakoek euren sarrerako atean itsatsi dezaten. Elementu hori banan-banan bisitatu eginez zabalduko du Euskara Batzordeak, dendariei euskararen erabilera urratsak emateko gonbitea eginez.

Horrekin batera, Nekane Arakistain Euskara batzordeburuak gogoratu du ageriko elementuak euskaraz

tzeko urtero-urtero ematen diren diru-laguntzak zein hizkuntzaren alorreko aholkularitza eta laguntza teknikoak ematen jarraituko dutela 2013an. Bestalde, herritarren hausnarketa eragiteko eta denda eta tabernetan euskararen erabilera bultzatzeko bideo-lehiaketa ere abian da. Martxoaren 25ean amaitzen da, hain justu, bideo lehiaketako lanak aurkezteko epea eta hilaren 27an bideoen proiektzioa egingo da (19:00etan, Agirre Jauregian). Herritarrek martxoaren 28tik apirilaren 8a bitarte izango dute gustuko lanaren aldeko botoa emateko aukera -internet bidez edo Turismo Bulegoan botoa emanez-, eta Euskara Batzordeak apirilaren 12an jakinaraziko du erabakia, sariak banatzeko Agirre jauregian (arratsaldeko 7etan) egingo duen ekitaldian.

Tupper berrerabilgarriak

Udaleko Ingurumen Sailak Kutxa Ekoguneak sustatutako **Ontziratuta Zaitetz!** kanpainarekin bat egin du. Plastikozko zorroren ordez tupperrak erabiliz, arrandegietan edo harategietan sortzen den zaborra gutxitzea da ekimenaren helburu nagusietako bat. Guztira, herriko 2.000 etxetara iritsi dira ontzi berrerabilgarriak, eta tupper hori erabiltzen duten erosleen artean 30 euroko erosketa-bonoa zozketatutako da hilero. Hauek dira, oraingoz, Ontziratuta Zaitetz! kanpainan parte hartuko duten herriko saltokiak: Andres autozerbitzua, Gure Denda, Genoveva arrandegia, Txomin arrandegia, Aittola harategia, Albizu harategia, Arakistain harategia, Arrizabalaga harategia, Erdoki harategia, Lizaso harategia eta Eroski Center.

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31
 20820 DEBA (Gipuzkoa)
 Tel./Fax: 943 192 249
 Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940
 sagarmina@sagarmina.com
 www.sagarmina.com

Jari zure publizitatea
 Berriekin aldizkarian!

Zuhatzza

943 191 383
 berriekin@zuhatzza.com

BADATOR KORRIKA 18

Deban ere, eman euskara elkarri!



Irudia: Aritz Loiola

Martxoaren 23ko egitaraua

-8:30: Txistulari eta dantzariekin kalejira, Foruen plazatik abiatuta.

-9:36: KORRIKA (lasterketa ofiziala) iritsiko da Debara. Artzabalgo biribilgunean egingo diogu ongietorria. Bertaratu guztiok!!

-10:30: Murala margotuko da, Foruen plazan.

-12:30: Aitzuri abesbatza, kalez kale.

-13:30: Musika Banda, kalez kale.

-Egunean zehar: Debako erraldoi eta dultzaineroak ere kaleak alaitzen ariko dira.

Martxoaren 14an Andoainen hasi da Korrika 18, bi urtean behin egiten den euskararen aldeko lasterketa erraldoia. Hamaika egunez gelditu gabe, Euskal Herria zeharkatuko du hemezortzigarrenez, martxoaren 24an Baionara heldu arte. 2.550 kilometro baino gehiagoko ibilbidea egingo dute, Euskal Herri osoan euskararen aldeko mezua zabalduz: *Eman euskara elkarri* da aurtengo edizioaren leloa. Hitz horien bidez zera adierazi nahi da: "Euskarak euskal herritarrok elkarrekin bizitzeko hizkuntza izan behar du. Elkarri hitz egiteko hizkuntza. Elkar entzuteko eta ulertzeko".

Korrika 18k euskalduntzen eta alfabetatzen ari diren milaka eta milaka pertsona omenduko ditu. Euskalakari izateko ahaleginean euskara ikasten eta praktikatzen ari diren guztiak, hain zuzen ere.

Deban, martxoaren 23an (larunbata) egingo zaio ongietorria Korrikari. Aurreikuspenen arabera, goizeko 9:36ak aldera iritsiko da lasterketa herrikoia Artzabalgo biribilgunera, Mutrikutik baitator. Hori hala izanda, Korrika Batzordeak herritar guztiei Artzabalera joateko gonbidapena egin die, euskararen aldeko lasterketa honek gure herrian ere babes zabala izan dezan hasieratik. Artzabalen hasi eta herri erdigunera sartuko da gero Korrika, Angulero kaletik barrena. Erdigunea zeharkatuz, Itziarrerako bidea jarraituko dute gero korrikalariak.

Martxoaren 23rako egitarau berezia prestatu du Korrika Batzordeak (goian duzue ikusgai), baina alde zuzenetik ere hamaika ekimen burutu dira herrian, Korrika Kulturalaren baitan (eskuineko irudiak dituzue horietako zenbaiten lekuko). Auzolana eta elkarlana oinarri hartuta, herriko eragile eta norbanako ugari gogotsu aritu dira lanean Korrika Batzordean. Haientzat guztientzat eskerrik beroenak lerro hauen bitartez!

Goza dezagun guztiok Korrika, goza dezagun guztiok euskara, egunotan zein urte osoan zehar! Eta, badakizue: **EMAN EUSKARA ELKARRI!**



Interpretazio Plana aurkeztu du Geoparkeak...



Lurraldeak duen ondare kultural, geologiko eta kultural oparora bisitariari gerturatzeko asmoz, Euskal Kostaldeko Geoparkeak Interpretazio Plana burutu du, Geoparkea osatzen duten hiru udalerrietan inplementatzeko (Deban, Mutriku eta Zumaian).

Planaren helburu nagusia erreminta bat eskura jartzea da, Geoparkearen interpretazioarekin zerikusia duten jardueren planifikazioa ahalbidetuko duena, jasagarritasun irizpideen arabera eta etorkizuneko mantenu kostuen arrazionalizazioan, jardueraren egokitasunean, erabilera turistiko arduratsuan, bertako herritarren erabilera egokian, ingurumenaren gaineko inpaktuaren kontrolean eta sortzen diren produktu edo zerbitzu interpretatiboen bideragarritasun ekonomikoan oinarrituz.

Interpretazio Planak Geoparkera hurbiltzen diren bisitariari zer kontatuko zaien, non eta nola, jasotzen du. Planak diskurtso bateratu bat proposatzen du geologia eta planetaren historia kulturalarekin eta gizakiak geologia horri eman dion erabilerekin uztartzen duena, Europako aurrehistoriako paisaia kultural bizia osatzen duena Geoparkean.

Diskurtso honetan oinarrituz, Interpretazio Planak hainbat jarduera aurreikusten ditu hiru udalerrietan, hala nola egungo azpiegiturak hobetzeko lanak, azpiegitura berrien eraikuntza, Geoparkearen bisibilitatea hobetuko duen bide-

seinalazioa, ibilbide gidatuak eta Geoparkea hobeto ulertzea ahalbidetuko duten ikus-entzunezkoak edota koba bat museo bihurtzea.

Proiektu hauek guztiak fase ezberdinetan garatuko dira, Geoparkearen bilakaera garbi baten baitan, baliabideen disponibilitatearen arabera. Premiazko jarduerak izango dira burutuko diren lehenengoak, epe motzean, eta proposaturiko diskurtsoa martxoan abiatutako 2013ko bisita gidatuen programaren gidoian sartuko da pixkanaka.

Dokumentua, webgunean

Mutrikuko Zabil Jauregian egin zen Interpretazio Planaren aurkezpena, eta dokumentua webgunean zintzilikatu dute (www.geoparkea.com), informazioa denen eskura jarritz. Dokumentua idatzi duen lantalde teknikoa Jordi Pardo Unesco-ko aholkulari eta proiektu kulturalerako kudeatzaileak zuzentzen du eta kide ditu Jakoba Errekondo paisajista, Hector Fano geologoa eta Manu Izagirre ondarean aditua.

Jordi Pardok aurkezpenean nabarmendu zuenez, Interpretazio Planak komunikazio, elkarrizketa eta partaidetza prozesu bat abiatzea ere jasotzen du, gizarteak proiektua eza-gutzea "ezinbestekoa" dela iritzita.

...eta sari batekin itzuli berri da Berlingo Turismo Azokatik



Euskal Kostaldeko Geoparkea, Donostia Turismo eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko elkarlanak posible egin du Geoparkea, Donostia eta oro har Gipuzkoako lurraldearen parte-hartzea Berlingo Nazioarteko Turismo Azokan.

Gipuzkoako ordezkariak Europako beste sei geoparkeekin elkarbanatu du erakustokia, Portugal, Finlandia, Txekiar Errepublikak eta Alemaniako hiru geoparkerekin. Horiek denak Geoparkearen Sare Globalaren markaren pean aurkeztu dira eta, hain justu, stand onenaren 3. saria lortu dute, GKE eta irabazi-asmorik gabeko erakundearen kategorian.

Azoka martxoaren 6tik 10era bitartean burutu da Berlinen. Eta, bertan, Euskal Kostaldeko Geoparkeak bere

eskaintza turistikoa aurkeztu dio publiko alemaniarrari. Besteak beste, pakete turistiko bat eraman dute bertara, turista alemaniarra erakarri asmoz: bi gau igarotzeko ostaturia, Geoparkean bisita gidatua eta doako sarrerak Donostiako Aquariumerako eta Algorri eta Nautilus Interpretazio Zentroetarako.

Bestetik, Geoparkearen Zuzendaritza Batzarra egin zen martxoaren 8an. Eusko Jaurlaritzako Turismo zuzendari Mertxe Garmendiak ere parte hartu zuen bileran eta, lehenbiziko aldiz, Geoparkea osatzen duten hiru udalerriak ezagutu zituen -Zumaia, Deba eta Mutriku-, eta itsasontziz bisita gidatua egiteko aukera izan zuen, flyscha gertutik ikusteko (ezkerrean, behean, ikusgai duzuen argazkia bisita horri dagokio).

BERRIKETAN GAZTEA

Mendata BHI-ko Prentsa Tailerlean Sortua.
2013ko martxoaren 8a

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna martxoaren 8an ospatu ohi da. New Yorkeko fabrika batean 146 emakume langile hil zirelako ezagutzen dugu gehienok martxoaren 8a. Protestatzen ari ziren soldata miserableak eta oso lan baldintza txarrak zituztelako eta jaurti zizkieten suzko bonbek izugarizko sutea eragin zuten.

Hala ere, zenbait historialariren iritziz, gogoratzen dena ez da 1908ko gertaera hura, 1909ko irailaren 27an gertatutakoa baizik. Badirudi New Yorkeko 20.000 langilek, gehienak emakumezkoak, 13 aste iraun zuen greba egin zutela. Sufrimendu latza jasan zuten: gosea, atxiloketak, kaleratzeak... baina eskariak betetzea lortu zuten. 1909ko martxoaren 8an berriro konbokatuko zen manifestaldia, hobekuntza gehiago eskatuz.

Gure iritziz, egun hau beharrezkoa da, emakume langile asko daudela gogorarazteko. Gainera, Mendata ikastetxean hitzaldi batzuk egingo dira eta Debako gazteek zenbait bideo grabatu dituzte eskolaz kanpo, Kuadrillategiko orduetan.

EGILEAK: Amaia Mendikute eta Naiia Orbegozo

3. mailakoak eskiatzera joan ziren Gouretteira


Abian den denboraldiari begira, Gouretteko estazioak zenbait berritasun prestatu ditu erabiltzaileentzat: telekabina berria ipini dute, estazio osoa oinezkoentzat jarri dute, hasiberrientzako gunea handitu dute eta jatetxe berri bat ireki dute.

Estazio hau Espainiako mugatik 50 km-ra dago. Estazioaren puntu baxuenak 1.350 metro ditu eta altuenak, berriz, 2.450 metro. Aproposa da eskiatzailerik hasiberrientzako, ez dauka oso pista zailak; beraz, lagungarria da ikasteko. Badago snowpark bat ere ausartentzako. Herriko estaziara iristeko kotxez joan gaitzke, baina badago telekabina bat ere herriko zuzenean abiatzeko estaziara.

Aurten ere, aurreko urteetan bezala, Gorputz Hezkuntzako irakasleari esker, hirugarren mailako ikasleek eskiatzen ondo pasatzeko eta ikasteko aukera izan dute. Eguraldi txarra zela eta, otsailaren 8an ezin izan ziren eskiatzera joan, meteo frantsesek eguraldi txarra eta hotz handia egingo zuela iragarri zutelako. Azkenean, otsailaren 22an joan ziren eta oso ondo pasatu zuten, bai eskiatu zutenek eta baita snowa praktikatu zutenek ere.



EGILEAK: Jon Yarza eta Maria Aizpurua



KRO NI KA

Jon Arretxe idazlearen bisita izan genuen Mendata institutuan



Lehengo egunean, idazle euskaldun bat etorri zitzaigun Mendata institutura. Jon Arretxe izan zen bisitan etorri zitzaigun idazle euskalduna. 1963ko ekainaren 4an jaio zen Basaurin, Bizkaian.

Jon Arretxeri, nerabezaroan ez zitzaion gustatzen irakurtzea, ezta idaztea ere. Orain, aldiz, idazle bizia da. Hogeitik gora liburu argitaratu ditu, hala nola "Ostegunak", "Larunbatak", "Kleopatra" edo "Ostiralak". Lehenengo liburu behartuta idatzi zuen.

18-19 urterekin bidaiatzen hasi zen. Ia 30 urterekin ikasketak alde batera utzi eta bizikletan

Afrikara joan zen, hiru hilabeterako. Beste urte batean, Amazoniara bizikletaz joan zen eta ia-ia jan egin zuten.

Abentura asko bizi izan ditu. Besteak beste, Beasainen lehiaketa baterako izena eman, irabazi eta 3.000 euro lortu zituen.

Umeentzako liburu bakarra argitaratu du Arretxek eta arrakasta handia eduki zuen.

Pertsona batzuek esaten zioten "Ostegunak" liburu ona zela, eta beste batzuek, berriz, oso txarra zela. Gehien saldu den liburu "Ostegunak" izan da.

Jonek azaldu zuen azkeneko gauza da bere azken proiektuan lanean dabilela eta bere liburu gustukoena "Zazpi Kolore" dela. Bere bisitan, detaile modura, Mikel Sagarnari "Ostiralak" liburu oparitu zion, bera izan zelako galdera bat egin zion lehenengo pertsona.

Gure iritziz, idazleak kontatutako gauza batzuk interesgarriak izan ziren eta beste hainbat gauza, aldiz, aspergarriak. Email batzuk erakutsi zizkigun, adibidez, oso barregarriak zirenak eta irakurleek, bertan, beraien iritzia ematen zituzten. Emailak idatzi zituzten pertsonetako batzuk oso gaizki zeuden burutik; batzuek sekulako barre algarak eragin zizkiguten. Emanaldian bildutako lagunek galdera batzuk egin zituzten eta Jon Arretxek ahal zuen bezala erantzun zituen.

animaliak

Oraingo honetan, Mendata ikastetxean animaliei buruzko galderak egin dizkiegu ikasleei:

- 1.- Etxean baduzu animaliarik? Zein?
- 2.- Noiztik duzu?
- 3.- Nork betetzen ditu bere betebeharrak?
- 4.- Zer ematen diozu jateko?
- 5.- Neketsua al da zaintzea?
- 6.- Inoiz desiatu al duzu animaliarik ez izatea? Zergatik?



Udane Oiartzabal:

- 1.- Bai, txakurra.
- 2.- Orain dela bi urte oparitu zidaten.
- 3.- Nire gurasoek, ni alperra naizelako.
- 4.- Pentsua eta soberakinak.
- 5.- Ez. Ez dudalako ezer egiten.
- 6.- Bai, zaunka egiten duenean.



Ane Masach:

- 1.- Bai, hamsterra.
- 2.- Orain dela hiru aste.
- 3.- Anaiak.
- 4.- Pipak.
- 5.- Ez, ez diodalako kasurik egiten.
- 6.- Bai, ez zaizkidalako animaliak gustatzen.



Izaro Altzibar:

- 1.- Bai, katua.
- 2.- Orain dela hiru hilabete.
- 3.- Nik.
- 4.- Katuentzako janaria.
- 5.- Ez, ez delako ezer mugitzen.
- 6.- Ez, animaliak gustatzen zaizkidalako.



Gaizka Aldalur:

- 1.- Bai. Behiak, txakurrak eta katuak.
- 2.- Ni jaio baino askoz ere lehenago.
- 3.- Familia guztiak.
- 4.- Artoa, pentsua, lastoa eta belarra.
- 5.- Bai, jateko asko behar dutelako.
- 6.- Ez. Animalia jaioberriak ederrak direlako.



Uxue Santos:

- 1.- Bai, txakurra.
- 2.- Duela bi urte.
- 3.- Nire amak.
- 4.- Pentsua, arroza eta hezurak.
- 5.- Ez.
- 6.- Ez, nik txakurra nahi nuelako.



Marta Aznal:

- 1.- Bai, bi txakur.
- 2.- Orain dela lau urte.
- 3.- Familia guztiak.
- 4.- Pentsua.
- 5.- Ez, asko gustatzen zait.
- 6.- Ez, gustatzen zaizkidalako.




Maria Aizpurua:

- 1.- Txakur bat daukat.
- 2.- Duela bi urte.
- 3.- Aitak eta aitonak.
- 4.- Ez dakit, pentsua uste dut.
- 5.- Ez, ez dudalako ezer egiten.
- 6.- Bai, ez zaizkit animaliak gustatzen.



Aiora Zubikarai:

- 1.- Txakur bat.
- 2.- Duela 5 urte.
- 3.- Nik eta ahizpak.
- 4.- Pentsua.
- 5.- Bai, pixka bat bai.
- 6.- Ez. Animaliak gustatzen zaizkidalako.



DenBord-pasaK

ALBISTEA

SAN BALENTIN LEHIAKETA

Aurten ere, urtero bezala, Mendata ikastetxean San Balentin lehiaketa egin da, eta maila bakoitzak sari bat eduki du. **Lehenengo mailan**, adibidez, irakurleen saria Nikolas Egañaren "Flechazo en Urbil"-entzat izan da. Eta epaimahaiaren saria Sara Goikoetxearen "Un corazón, dos pasos" lanak lortu du.

Bigarren mailan, Julen Monasterioren "Maitemindu baten gutuna" olerkiak irabazi du. Epaimahaiaren saria, berriz, Paule Aranberriren "Nor zara?" lanak eraman du. **Hirugarren mailan**, Julen Gorritik irabazi du irakurlearen saria, "Querida Evarista" lanarekin. Eta June Izagirrek epaimahaiaren saria irabazi du, "Querido Rasputín" gutunarekin.

Laugarren mailan ez da irakurlearen saririk egon eta epaimahaiaren saria Iñaki Amilletak irabazi du, "Kaixo maitea" lanarekin.

Azkenik, kartelen saria zazpigarren kartelak irabazi du, Dayana Barrios eta Ena Esmorisen eskutik.




EGILEAK: Amaia Mendikute eta Maria Aizpurua

HIEROGLIFIKOAK

  Nork agindu du?	 Non egon da?
---	---

Erantzunak:
 a) apezpikuak
 b) Norbegian

7 ezberdintasunak



EGILEAK: Iker, Alex eta Nora

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRENTSA TAILERRA 2012-2013

Naia Orbegozo
 Maria Aizpurua
 Jon Yarza
 Iratz Fernandez
 Imanol Sobrado
 Jon Albizu

Aitor Gonzalez
 Alex Treku
 Ane Garcia
 Nora Mandiola
 Iker Leiro
 Amaia Mendicute

Koordinatzailea: Iraide Otazua

Aurten ere ekimen ugari burutu dira Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan



Eider Goiburu, Kultur Elkarteak.



Erakusketan parte hartzen duten margolariak.



Erakusketaren inaugurazioa, Agirre Jauregian.



DUNAMIS elkarteko kideak.



Elkarretaratzea, Foruen Plazan.



Trikitilariekin burututako kalejira.

Laura Mañák zuzendutako "La vida empieza hoy" filmaren emanaldiarekin abiatu zuen Debako Udaleko Berdintasun Sailak aurtengo martxoaren 8aren bueltan antolatutako egitaraua. Emanaldia Kultur Elkarteak burutu zen (hilaren 7an), eta Lahia-Nahia Sexologia Elkarteak Eider Goiburu psikologo, sexologo eta berdintasun teknikaria moderatzaile lanetan aritu zen emanaldiaren ostean burututako solasaldian.

Martxoaren 8an bertan, Debako emakume langileen fotomuntaia aurkeztu zuten Gaztelekuko gazteek Agirre Jauregiko Ispiluen Gela bete-betean. Bertan, DUNAMIS Emakumeen Elkartearen aurkezpen ofiziala ere egin zen eta, jarraian, Maite Iriondo, Miren Esnal, M^a Mar Cabeza eta Begoña

San Jose margolarien lanak biltzen dituen "Koloretan bizi" erakusketara inauguratu zen (lunch-ik ere ez zen falta izan!).

"Martxoak 8. Emakumeen Indarra" lelopean, urteroko elkarretaratzea egin zen iluntzean Foruen plazan, eta ondoren trikitilariek alaitutako kalejira burutu zen herrian.

Pikor Teatrok martxoaren 9an eskainitako "Atsoak dantzan" antzerki emanaldia ez ezik, aurtengo egitarauaren baitan beste hitzaldi bat ere izango da. "Nork garbituko ditu ontziak gaur gauean? Gizon eta emakumeen denbora erabileraz ezberdinduaren inguruko hausnarketa" izenburupean, Matxalen Legarreta, EHUKo Soziologia irakaslea, arituko da hizlari. Apirilaren 11n izango da hitzordua, 18:30ean, Kultur Elkarteak.

Udalak adostutako adierazpen instituzionala:

Euskal Herriko emakumeak krisi sistemiko batean murgilduta bizi dira, eta, egoera horren aurrean, Debako Udal honetatik gogora ekarri nahi dugu martxoaren 8ko oroitzapenak esparru jakin batean kokatu behar direla, hain zuzen ere feministek emakume guztientzako eskubideen alde betidanik sustatutako aldarrikapenaren eta erresistentziaren esparruan.

Emakume feministek 1908an aldarrikatutako errebindikazio horrek indarrean jarraitzen du 2013an, are indar handiagoarekin gainera, eta horregatik lanean jarraitu behar dugu, era askotara zapaltzen eta menderatzen gaituen sistema kapitalista eta patriarkala errotik aldatzeko. Eta borroka hori are garrantzitsuagoa da, halaber, behin eta berriz aplikatzen ari diren dekretuak, erreformak eta gizarte-murrizketak kontuan hartzen baditugu, urtetako borrokan gizartearen, lanaren, ekonomiaren eta politikaren arloetan irabazitako eskubideen zuzeneko galera dakarten neurrian. Finantzek eztanda egin eta zorraren iruzurra nabarmendu aurretik, emakumeok bide luzea genuen egiteko, eskubide guztiak geureganatu eta lortzeko. Alabaina, une honetan atzera egiten ari gara, diskurtso atzerakoï batek emakumeok

berri ere adingabe moduan tratatu nahi gaituelako, erabakitze gaitasunik gabe eta bizi-modu prekario batera kondenatuta.

Atzerakada horren adierazgarri ditugu, batetik, abortuaren legearen erreforma iragartzen ari direla, erreforma ultrakontserbadorea eta eliza katolikoaren agintarien eskutik datorrena, eta, bestetik, inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko laguntzetarako egundoko murrizketak, lan horren karga berriz ere familien -eta familien barruan, emakumeen- esku utziko duena, eta, horrenbestez, emakumeok prekariedade handiko eta errekonozimendu txikiko jardun horretan aritzera behartuko gaituena.

Urtero-urtero, martxoaren 8an emakumeok borroka feminista eguneratzen dugu, mundu berri bat sortzeko bidean. Mundu berri horretan, emakumeok gure bizi-tzaren eta gure gorputzaren jabe izango gara, bizimodu duina izango dugu, gure orain ekonomiko eta soziala eraikiko dugu, eta, edonon gaudela ere, subjektu politikoak eta etorkizun politikoaren zuzeneko eragileak izango gara.

Gure ustez, xede horiek guztiak lortzeko, funtsezkoa eta estrategikoa da erakun-

deek berdintasunerako politika publikoak lortzeko baliabideak jartzea, eta, ildo horretan, argi eta garbi adierazi nahi dugu toki-erakundeen eskutik xede horretarako programak eta baliabideak kentzeko asmoarekin etor litekeen erreforma oro guztiz gaitzetsi egingo dugula.

Gainera, Udal honek honako lehen-tasun hauek ere baditu:

-berdintasunerako politika publikoak gartztea, politika horien eskura aurrekontu eta teknikari egokiak jarritz.



-programak eta proiektuak aztertu, garatu eta ebaluatzerakoan udalaren gobernu-ekintza orok genero-ikuspegia kontuan hartzeko neurriak bultzatzea.

-emakumeen elkarteekiko eta mugimendu feministarekiko elkarrikeria politikoa indartzea. -indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko politikak eta berdintasunerako politikak etengabe uztartzeko.

Azkenik, mugimendu feministak betidanik emakumeen eskubideen alde egindako erresistentzia eta borroka eskertu nahi dugu, eta, bestetik, martxoak 8rako udaletxeko berdintasuneko batzordetik egingo diren ekimenetan parte hartzea deitzen zaituztegu.

Udalak 6.556.919 euroko aurrekontua onartu du 2013rako

Inbertsioetarako 152.037 euro bideratzeko asmoa du



Pasa den otsailaren 28ko plenoan onartu zituen Debako Udaltzatza 2013rako aurrekontu orokorrak, Alternatiba Eraikitzen, EAJ, EA, Ezker Anitza eta Aralarren babesarekin, eta Itziar Herria Sortzen taldearen abstentzioarekin. Iazko aurrekontuarekin alderatuta, %3,98 txikiagoa izango da 2013. urterako onartutakoa. Aurrekontu bateratua –udal aurrekontua eta patronatuei dagokiena–, berriz, 6.905.217 eurokoa izango da (iazkoa baino %4,12 txikiagoa, alegia). Hain zuzen ere, Deba Musikal patronatuak 500.297 euroko aurrekontua dauka (iaz baino %1,98 gehiago), Liburutegiak 142.782 eurokoa (iaz baino %7,9 gutxiago) eta Arte Eskolak 199.300 eurokoa (iaz baino %1 gutxiago).

Udaletik jakinarazi dutenez, egungo egoera ekonomikoaren eragile nagusiak dira, batetik, Foru Fondoaren eboluzio negatiboa (udalaren baliabide nagusia dena), eta bestetik, administrazio batzuetatik jasotzen diren diru-laguntzak murriztu izana. Egoera horri aurre egin nahian, aurrekontua “zuhurtziaz eta zorroztasunez” adostea izan dute helburu, “betiere aurreikuspenak errealitate batean kokatuz, aurrera begirako erronkei indartsu erantzuteko”.

Aurtengo gastuak eta inbertsioak

Gastuei dagokienez, eta sarrerekin orekatze aldera, udal arduradunek aipatu dute “ditugun baliabideei egokitzeko modurik eraginkorrena gastu arruntetan zorrotz jokatzearena” dela, “baliabideak optimizatu eta etengabeko jarraipena eginez”. Bestetik, azpikontrataturako zerbitzuen jarraipena egiteko asmoa dute, haiekiko hausnarketa bat abiatuz.

Inbertsioei dagokienez, berriz, “herriaren neurrikoak

diren inbertsioak egitea” aurreikusi dute, “betiere kanpo finantziazioa eta urte bat baino gehiagotan kudeatzeko eta planifikatzeko aukerari eutsiz”.

Guztira, inbertsioetarako 152.000 euro pasatxo bideratuko dira aurtun. Udal arduradunek azaldu dutenez, kopuru horren baitako inbertsio nagusiak “gure herri nortasuna balorean jartzeko helburuarekin” egingo dira. Esparru horretan, besteak beste, Geoparkearen proiektua dago eta egitasmo horretan sartzen dira aterpetxe berria egiteko proiektua, Turismo Bulegoaren egokipenaren jarraipena, ondare kulturalaren balioen partida (Praileaitz II haitzuloan aurkitutako aztarnak dokumentatzeko, baserri eta leinuen dokumentazio biltzea, eta herriko kondairak indartzea) eta Deba eta Itziar herriko ondarea erakutsi eta azalduko duten sei panelak. Guztira 59.000 euro bideratuko dira horretarako.

2013KO AURREKONTUA, ZENBAKITAN:

- *Debako Udal aurrekontua: 6.556.919 euro
- Deba Musikal: 500.297 euro
- Liburutegia: 142.782 euro
- Arte Eskola: 199.300 euro

Saharar herriarekiko elkartasuna

Otsailaren 28ko osoko bilkuran, Debako Udalak saharar herriarekiko elkartasun mozio bat ere onartu zuen (Ezker Anitza eta Aralarren ekimenez). Beste hainbat punturen artean, preso politiko sahararai guztien askatasuna aldarrikatzen da bertan, baita Gdeim Izik kanpamendua altxatu ondoren atxilotu zituzten giza eskubideen aldeko 24 aktibistena ere. Saharar herriaren oinarritzko eskubideak berma daitetzela eskatzen du, autodeterminazio eskubidean oinarritu-

tako gatazkaren konponbidearen aldeko jarrera agertuz. Eta, aldi berean, dei egiten zaio Espainiako Gobernuari jarrera hori bera nazioarteko instantzia guztietan ere defenda dezan.

Arabiarrak Sahararren Errepublikan Demokratikoa aldarrikatu zela 37 urte bete zirela ospatzeko eta Saharako herriari elkartasuna adierazteko, otsailaren 27an Udaletxeko balkoian Saharako bandera jarrita egon zedin ere eskatzen zuen mozioak.

Udaberrirako jarduera berriak antolatu ditu Debanaturak

Debanatura elkarteak ekimen ezberdinak burutuko ditu udaberrian. Prestatu duen egitarauaren baitan, besteak beste, bost eta hamaika urte bitarteko haurrentzako udalekuak eskainiko ditu Aste Santuan. Apirilaren 2tik 5a bitarte egingo dira udalekuak, Gela Berdean, umeen natur-aisialdi txokoan –goizeko ordutegian–. Aire libreko eta barruko jarduerak burutuko dira: txangoak, jolas kooperatiboak, eskulanak, musika, dantza... eta ipuin-kontalari baten bisita ere izango dute.

Hiri eta Giza Ekologiaren Gela egitasmoaren barruan, ikastaro eta tailer ezberdinak ere eskainiko ditu elkarteak, hala nola sendabelarrak ezagutzen eta erabiltzen ikasteko tailerra, “Zaindu Konpa” deritzon Ingurumen Osasuna eta Etxeko ekologiaren tailerra, “Cocinar sin comerse el mundo” izenburuko eta Autokontsumorako Baratzta Ekologikoa. Klase teoriko-praktikoak izango direla jakinarazi dute arduradunek.

Debako Hondakinen Foroa

Bestetik, Deban GARBI ZZ egitasmoaren baitan, Debako Hondakinen Foroa ere abian du jada Debanaturak, “ezinbestekotzat” jotzen baitu Deban ere hondakinen arazoaren eta kudeaketaren inguruan herritarrei informazio baliagarria eskaintzea eta dibulgazio lana egitea, herritarren parte-hartze aktiboagoa bultzatuz.

Alegia, elkarteak emandako datuen arabera, “debarrok birziklatzen dugun tasa %22ra iristen da soilik (Iturria: Eustat)” eta “egoera tamalgari eta lotsagari honen aurrean” zerbait egin behar dela irizita sortu da, hain justu, Herriko Hondakinen Foroa deritzon ekimena. Foro horren bitartez, mahai-inguruak, ikas-tailerrak, material didaktikoa (erakusketa bat) eta bestelako jarduera batzuk ere burutuko dira laster. Horretarako, arduradunak irizpide batzuetatik abiatzen dira: “Hondakinak ez dira zaborra. Hondakinen arazoa konpondu nahi badugu, bere sustraitara jo



beharko genuke: egun dugun kontsumo eredu jasanezin honetara; beraz, konponbidea gure eguneroko jardunean datza. Errausketaren kontra gaude hamaika arrazoiengatik (...). Zero Zabor edota Hondakin minimoa posible den ala ez jakin nahi dugu, gure herrian baieztaiz... Horregatik, hondakinen kudeaketa alternatiboak bilatuz birziklapen tasa hirukoiztea dugu helburu, errausketa plantak sortzeko beharra ekidinez. Murriztu-Berrerabili-Birziklatu”. Gaineratu dutenez, “zabortegiei, errausketari, atez-atekoari, auzo-konpostajeari buruz hitz egingo dugu, sistema bakoitzak gure osasunari eta ingurumenari dakartzkion ondorio kaltegarriak edota bere onurak aztertuz, informazio baliagarria eta egiaztagarria izateko eta gero irizki objektiboen bidez konponbideak bilatzeko guztion artean”.

Debako Hondakinen Foroaren aurkezpena martxoaren 13an egin zuen Debanaturak. Nolanahi ere, informazio gunea jarriko dute asteazkenetan Gela Berdean (18:30etik 20:00etara). Elkartearekin harremanetan jartzeko beste biderik ere badago: debangarbi-zzforoa@hotmail.com-era mezu bat idatzita edo 695 783 656 telefono zenbakira deituta.



Gipuzkoako Hiru Txirlo bolo txapelketa

Hilaren 23an abiatuko da Gipuzkoako XLIV. Hiru Txirlo bolo txapelketa, San Rokeko (Elgoibar) bolatokian egingo den jaurtialdiarekin, eta ekainaren 8an egingo da azken saioa, Garmendipen (Azpeitia). Txapelketaren baitan, hamaika jardunaldi egingo dira guztira –Lasturren, adibidez, apirilaren 20an izango da jaurtialdia–, eta sari ezberdinak egongo dira jokoan. Txapelketako saioak larunbatetan burutuko dira, arratsaldeko 16:00etan hasita.

Debako Arte Eskola, Debabarrenako I. Lanbide Heziketa Azokan

Eibarko Armeria Eskolak ABIAN, Debabarrenako I. Lanbide Heziketa Azoka, hartu du hiru egunez (martxoaren 14tik 16ra bitartean). Debegesak antolatutako ekimenak helburu bikoitza izan du: batetik, eskualdeko eskaintza formatiboa aurkeztea eta, bestetik, Lanbide Heziketa lan merkatuaren beharrezanean ondoen egokitutako ikasketa gisa nabarmentzea, Lanbide Heziketaren eta enpleguaren arteko lotura erakustea, alegia. Horretarako, hitzaldi, bisita eta bestelako jarduerak burutu dira azokan. Eskualdeko LHko eta Ingeniaritzako zentroek parte hartu dute bertan, tartean Debako Arte Eskolak ere.





Agenda

Martxoak 23, larunbata

-**Korrika 18.** Euskararen aldeko lasterketa herrikoia Debatik pasako da. Egitarau berezia antolatu da (ikus 9. orrialdea).

Martxoak 27, asteazkena

-19:00. **"Euskaraz? Pozik gainera"** lelopean antolatutako bideo lehiaketara aurkeztutako lanen proiektzioa egingo da Agirre Jauregian. Udaleko Euskara Batzordeak antolatutako ekimena da, euskararen erabilera sustatzeko helburua duena. Informazio gehiago, aldizkariko 8. orrialdean.

Martxoak 28-apirilak 1

-**Aste Santua.**

Martxoak 29, ostirala

-19:30. **Azken ostirala.** Preso eta iheslari politikoen aldeko mobilizazioa plazan, Herrira mugimenduak deituta.

Martxoak 29-apirilak 1

-**Gazte Danbada** jaialdia ospatuko da Urduñan.

Martxoak 31, igandea

-**Aberri Eguna 2013.** Independentistak Sareak deitutako Aberri Eguna ospatuko da Iruñean. Egun osoko egitaraua antolatzea aurreikusten dute.



Apirilak 11, osteguna

-18:30. Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltan antolatutako hitzaldia, Kultur Elkarteak. **"Nork garbituko ditu ontziak gaur gauean? Gizon eta emakumeen denbora erabilera ezberdinduaren inguruko hausnarketa"** izenburupean, Matxalen Legarreta EHUKo Soziologia irakaslea arituko da hizlari.

Apirilak 20, larunbata

-16:00. Gipuzkoako **Hiru Txirlo** Bolo Txapelketako jaurtialdi saioa Lasturko bolatokian.

Ikastaroa

-**Aisialdi hezitzaileei zuzendutako formakuntza saioak.** InteRed eta Topaguneak antolatutako "Zaintza biziz, errealitatea eraldatu" kanpainaren baitan, Deban taldea osatu nahi da (10-20 lagun ingurukoa) ikastaro hau burutu ahal izateko. Bi helburu nagusi izango ditu ikastaroak:

1) "Gure hezitzaile ikuspegitik eta oinarri ekofeminista batetik, botere harre-

manak era kritiko eta analitiko batetik aztertzea".

2) "Sistema kapitalista eta patriarkalaren alternatibak ezagutu, erreminta eta metodologia alternatibo eta zehatzak aurkeztuz".

Ikastaroak atal teorikoa eta praktikoa izango ditu, eta doan eskainiko da.

Izen-ematea eta informazioa: Zuhatzta Euskara Elkarteak (943 19 13 83).

Geoparkeko irteera gidatuak

-Euskal Kostaldeko Geoparkeak bisita gidatuei ekin die hila-bete honetan.

Irteera ezberdinak antolatuko ditu, eta horien gaineko informazio eguneratu eta osatua jasotzeko, www.geoparkea.com ataria kontsultatu daiteke. Turismo Bulegora deituta ere lor daiteke informazioa (943 19 24 52).



Ordutegi berezia Ostolaza Udal Liburutegian

-Martxoaren 25ean, 26an eta 27an liburutegia goizez eta arratsalde zabalduko da, ohiko ordutegian.

Apirilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean:
*Liburutegi orokorra: 9:00-14:00.
*Haur liburutegia: 10:00-13:00.

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **apirilak 5, 6, 7, 15, 16, 17, 18.**

Burgoa Zuazo: **martxoak 22, 23, 24.**
apirilak 1, 2, 3, 4.

22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat guardian.

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: apirilak 6 eta 13

BURGOA ZUAZO: martxoak 23 eta 30

9:30 - 13:30




MULTIÓPTICAS UZURI

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

MULTIÓPTICAS Uzuri

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN



Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak



Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Edurne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482
20820 DEBA (GIPIZKOA) ase.deba@teletel.es

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



ITXAS GAIN Taberna ITXAS GAIN

Hondartza ondoan Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi

Menua
Ogitartekoak
Plater Kombinatukoak

Lersundi kalea, 9
Tel. 943 229 488 - 618 644 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)



ALBIZU HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



GENOVEVA Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



MAZZANTINI TABERNA

Sokagiu, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel. 943 192 422

BOKATAK - PINTXOAK
ETA GIRO ONA

JIT

Informatika: Treseria informatikoa
Elektronika: Osagai elektronikak

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

Maxpe kalea, 7 - Behea
20820 DEBA


e-mail: jit@informatikajitelektronika.e.telefonika.net

Bordatxo JATETXEA

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Aftariak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater kombinatukoak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak



**Eman lekukoa elkarri,
eman etorkizuna
euskarari!!**